

KABLEBARIK SA: DIRU-SARRERAK

Gure asmakuntza hau berritzailea da eta gure iragarpenei dagokionez arrakastatsua izango da gaur egungo biztanleriaren artean. Oso erabilgarria da denbora falta eta korrika eta presaka baldin bazabiltza, eta hori oso ohikoa da gure sozietatean, mundu dinamiko batean bizi garelako.

Hasiera batean aurrera eramateko gure proiektua, gure aldetik inbersio bat egingo dugu, izan ere gure enpresa lehenagotik ere sortua zegoen eta lehenago egindako proiektuekin eta kolaborazioekin diru kopuru bat dugu jasota. Diru horrez gain, gehiago beharko dugu, baina gurekin bat egin duten enpresak ere beren aldetik jarriko dute. Orduan esan dezakegu abiapuntua bakoitzaren ekarpenetik hasiko dugula.

Behin proiektua aurrera eramaten goazen heinean, jarritako dirua eskuratzen joango gara. Ordainketa bakarreko diru sarrerak izango ditugu, hau da, bezeroak aldi bakarrean egindako ordainketatik eratortzen direnak dira. Horrez gain, puntu batetik aurrera aktibo salmentagatik jasoko ditugu irabaziak, hau da, saldutakoaren arabera izango da irabazia. Horregatik, gure sarrera nagusiak aktibo salmentatik eratorriak izango dira.

Guk egindako produktuari prezio finkoa jarriko diogu hasiera batetik, bertan aldatuko dena izango da segun eta zein enpresari erosten diozun mugikorra sistema horrekin prezioa altuagoa edukiko du horregatik edo eskuragarria izango da. Prezioa dinamizatu daiteke beste enpresaren bat gure berdina ekoizten hasten bada, izan ere, orduan merkatuan konpetentzia edukiko dugu eta bertara egokitu beharko gara gure bezeroak ez galtzeko.